# I. ERANSKINA

# SAN PRUDENTZIOREN ETA ESTIBALIZKO ANDRA MARIAREN OMENEZKO ARABAKO JAIAK IRAGARTZEKO KARTEL LEHIAKETAREN DEIALDIA

**1. artikulua. Xedea eta helburua.**

1. Deialdiaren xedea da 2023ko San Prudentzioren eta Estibalizko Andra Mariaren omenezko Arabako jaiak iragartzeko kartelaren diseinua aukeratzea. Kartela nahi den koloreak eta teknikak erabiliz diseina daiteke.

2. Helburua da artisten sorkuntza eta parte hartzea sustatzea, bereziki gazteena, eta jai horiei ahalik eta zabalkunde handiena emango dien diseinua saritzen saiatzea.

3. Deialdi hau Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailaren sariak norgehiagoka bidez emateko oinarri orokor arautzaileek arautzen dute. Oinarri horiek apirilaren 26ko 18/2022 Foru Dekretuak onetsi zituen eta ALHAOren 51. zenbakian argitaratu ziren, 2022ko maiatzaren 4an.

**2. artikulua. Laguntzak emateko prozedura.**

Saria norgehiagoka bidez emango da. Saria emateko, aurkeztutako lanak alderatuko dira, haien arteko lehentasuna ezartzeko, horretarako izendatutako epaimahaiak egindako balorazioaren arabera.

**3. artikulua. Aurrekontu egozpena eta sariaren zenbatekoa.**

1. Gastu hau Arabako Foru Aldundiaren 2023ko ekitaldirako gastu aurrekontuaren partida honen kontura egingo da: 70105.G/334700/48000701 "Arabako jaiak iragartzeko kartel lehiaketa".

2. Hona hemen emango diren sariak:

a) 250 euroko sari bat modalitate orokorreko bost hautagaitza finalistetako bakoitzarentzat.

b) 250 euroko saria Gazte modalitateko proposamen irabazlearentzat.

c) 1.000 euroko saria lehiaketaren irabazlearentzat. Kopuru hori bateragarria da finalista izateagatik lortutako 250 euroko zuzkidurarekin. Horrenbestez, irabazleak 1.250 euroko ordainketa bakarra jasoko du, eta dagokion atxikipena izango du.

**4. artikulua. Parte hartzaileen betekizunak.**

1. Kategoria orokorra eta Gazte kategoria ezartzen dira.

2. Kategoria orokorrean, edozein pertsona fisikok hartu ahal izango du parte, nazionalitatea edo bizilekua edozein dela ere.

3. Gazte kategorian, 25 urtetik beherakoek hartu ahal izango dute parte, baldin eta arteekin eta/edo diseinuarekin lotutako ikasketa ofizialak egin badituzte edo egiten ari badira deialdi hau ALHAOn argitaratzen den egunean.

4. Saridunek egunean izan behar dituzte zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

5. Kultura Ekintza Zerbitzuak ofizioz egiaztatuko du pertsonek atal honetan adierazitako baldintzak betetzen dituztela. Egiaztapen horien aurka egiten badute, egitate horiek egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztu beharko dituzte, 39/2015 Legearen 28.2 artikuluak arautzen duen bezala (Datu Pertsonalak

Egiaztatzeko helbidea Dirección de comprobación https://e-s.araba.eus/wps/portal/ConsultaCove
Egiaztapen kodea Código de verificación KKfs-QtB7-wvAS-Lax3

Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren azken xedapenetako hamabigarrenaren bidez aldatua).

**5. artikulua. Hautagaitzen ezaugarriak**

Kartel proposamen bakarra aurkeztu ahalko da, 6. artikuluan adierazitako formatu, bereizmen eta kolore motan.

Kartelean testu hauek agertu behar dira (euskarazko testuak lehentasunezko lekuan agertu behar du):

ARABAKO JAIAK San Prudentzio eta Estibalizko Andre Maria
Apirilak 28 – maiatzak 1 / 2023

FIESTAS DE ÁLAVA San Prudencio y Nuestra Señora de Estíbaliz
28 de abril – 1 de mayo / 2023

Arabako Foru Aldundiaren https://web.araba.eus/eu/foru-aldundia/erakundea/marka web orrian eskuragai dagoen komunikazio amaierako diseinuan sartu beharko da.

**6. artikulua. Aurkezteko modua.**

1. Deialdian parte hartu nahi duten pertsonek bide hauetakoren bat erabili beharko dute hautagaitza aurkezteko:

a) Bitarteko elektronikoak: Arabako Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoan horretarako eskuragarri dagoen inprimakia bete behar da. Horretarako, eskatzaileek Arabako Foru Aldundiak onartutako ziurtagiri elektronikoren bat eduki beharko dute. Argibide gehiago, hemen: https://egoitza.araba.eus/eu/-/convocatoria-cartel-san-prudencio

b) Aurrez aurre: Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean (Probintzia plaza 5, behea), edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 39/2015 Legearen 16 artikuluan aurreikusitako gainerako moduetako edozeinetan. Honako helbide honetara postaz bidalitako hautagaitzak ere onartuko dira:

ARABAKO FORU ALDUNDIA
Erregistro Orokorra
Kultura eta Kirol Saila
Kultura Ekintza Zerbitzua
Probintzia plaza 5, 3. solairua 01001 Vitoria-Gasteiz

2. Proposamenak honela aurkeztu behar dira:

Kartela PDF formatuan aurkeztuko da (72 dpi/RGB). 480 x 680 mm-koa izango da (bertikala), eta artxiboa izenordearen izenarekin izendatuko da.

Aurrez aurre edo postaz bidaltzea erabakitzen bada, euskarri informatikoan (CDa edo pendrivea) erantsi behar dira lanak, deskribatutako eskemaren arabera. Eskaerak deialdi honen II. eranskinean eskuragarri dagoen eredura egokitu behar dira.

3. Gainera, Gazte kategorian parte hartzen dutenek arteekin eta/edo diseinuarekin lotutako ikasketa ofizialak egiten ari direla egiaztatzeko agiriak aurkeztu behar dituzte, edo ikasketa horiek amaitu dituztela egiaztatzeko titulua.

4. Artikulu honetako aurreko apartatuetan adierazitakoarekin bat ez datozen bidalketak lehiaketatik kanpo geratuko dira.

5. Epaimahaiari lanak izenik gabe emango zaizkio, besterik ez. Egileen datu pertsonalak Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailean gordeko dira, eta epaimahaiak ezingo ditu eskuratu.

**7. artikulua. Aurkezteko epea.**

Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da eta 2023ko martxoaren 26an amaituko da, 23:59an.

**8. artikulua. Beste sari batzuekiko bateraezintasuna.**

1. Ezin dira lehiaketa honetara aurkeztu aurretik beste lehiaketa edo sariketa batean saria jaso duten kartelak.

**9. artikulua. Hautagaitzak balioesteko irizpideak.**

1. Sariak ematean, publikotasunaren, gardentasunaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak bermatuko dira, aurkeztutako eskabideak alderatuz.

2. Saria emateko, aurkeztutako lanak irizpide hauen arabera balioetsiko dira:

| | |
|---|---|
| Proposamenen sormena eta originaltasuna, diseinuari eta estetikari dagokienez. | 12 puntu |
| Sinpletasun grafikoaren eta kalitate tekniko eta artistikoaren arteko konposizio oreka. | 10 puntu. |
| Ideien sintesiaren bidez jaien muina komunikatzeko gaitasuna. | 10 puntu. |
| Testua argi eta irakurtzeko moduan txertatzea, tamaina egokiarekin eta kartelaren motiboarekiko orekan. | 8 puntu |
| Logotipoa txertatzeko modua eta erraz identifikatu ahal izatea. | 5 puntu |
| Gizarte aniztasuna eta, bereziki, emakumeena modu abstraktuan edo literalean irudikatzea. | 5 puntu |

**10. artikulua. Epaimahaia.**

1. Gaitasun profesionalaren eta esperientziaren irizpideen arabera hautatutako epaimahai kalifikatzaileak deialdira aurkeztutako lan anonimoak aztertuko ditu, eta deialdi honen 9. artikuluan ezarritako irizpideen arabera balioetsiko ditu.

2. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako otsailaren 4/2005 Legearen indarreko idazketaren 20.5. artikuluan xedatutakoa betez, sariak emateko sortutako epaimahaiak emakumeen eta gizonen osaera orekatua izan beharko du, eta eduki beharreko gaikuntza, gaitasuna eta prestakuntza izan beharko dute kideek. Lege horren arabera, lau kidetik gorako epaimahaietan edo antzeko organoetan ordezkaritza orekatua dagoela joko da sexu bakoitzak gutxienez ehuneko ordezkaritza badu, eta gainerakoetan, berriz, bi sexuak ordezkatuta badaude.

3. Epaimahaia osatzen duten pertsonek erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute eta honako hauek adierazi: ez daudela Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 40/2015 Legean aurreikusitako abstentzio arrazoien eraginpean, konfidentzialtasuna bermatuko dutela, emandako dokumentazioa ez dutela erabiliko deialdian ezarritako irizpideen arabera eskabideak baloratzeaz bestelako helburu baterako, eta txostena egin ondoren deialdiko dokumentazio guztia prozeduraren instrukzio organoari itzuliko diotela. Izendapen horiek Kultura eta Kirol Saileko diputatuaren ebazpen baten bidez onetsiko dira, eta ebazpen hori ALHAOn argitaratuko da, interesdunek errekusatzeko duten eskubidea baliatu ahal izan dezaten, legez ezarritako egoera eta baldintzetan.

4. Epaimahaiaren erabakiaren aurka ezingo da gora jo. Erabakia epaimahaikideen gehiengo soilaz hartuko da, eta epaimahaiak izango du eztabaidetan sortzen diren gorabehera guztiak ebazteko ahalmena.

5. Saria eman gabe geldi daiteke, epaimahaiak hala erabakitzen badu.

6.- Epaimahaiak erabakia hartu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita hogeita hamar egunen buruan eta hiru hilabete igaro arte, parte hartzaileek Kultura Ekintza Zerbitzuan (6. artikuluko posta helbidea) jaso ahal izango dituzte aurrez aurre edo postaz bidalitako euskarri informatikoak. Epe hori igarotakoan, euskarriak suntsitu egingo dira.

**11. artikulua. Prozeduraren izapideak eta ebazpena.**

1. Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko Kultura Ekintza Zerbitzua da prozedura izapidetzeko organo eskuduna.

2. Deialdian sortzen edo planteatzen diren gai guztiak ebazteko eskumena Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailarena da, eta eskumen esklusiboa da, gainera.

3. Epaimahaiak deialdi honetan ezarritako irizpideen arabera aztertuko ditu aurkeztutako hautagaitzak, eta sei kartel finalista aukeratuko ditu: bost modalitate orokorrean eta bat Gazte modalitatean. Era berean, kartel finalisten artean aukeratuko du lehiaketaren irabazlea. Epaimahaiak txosten bat egingo du bere erabakia jasotzeko, eta organo izapidegileari igorriko dio. Organo horrek behin-behineko ebazpen proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta, epaimahaiaren balioespenaren arabera, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio.

4. Kultura eta Kirol Saileko titularrak dagokion ebazpena emango du deialdia ALHAOn argitaratu eta gehienez ere sei hilabeteko epean.

5. Saria emateko ebazpena irabazleari eta finalistei jakinaraziko zaie, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. artikuluak xedatutakoari jarraikiz.

6. Hautagaitza irabazlearen lan amaitua ebazpena jakinarazten den egunetik 5 eguneko epean aurkeztu beharko da, ezartzen den moduan, inprimategian erreproduzitua izateko (bektoriala edo 300 dpi/CMYK).

**12. artikulua.- Saria ematearen ondoriozko betebeharrak eta konpromisoak.**

Deialdi honen irabazleak kartelaren exekuzio dokumentua aurkeztu beharko du ezarritako moduan eta epean. Hori egin ezean, irabazlearen izaera eta dagokion zuzkidura ekonomikoa galduko ditu, eta finalista izango da. Irabazlea izaera hurrengo pertsonari esleituko zaio, ezarritako ordenaren arabera, eta horrek, era berean, deskribatutako betebeharrak bete beharko ditu.

**13. artikulua. Ustiapen eskubideak.**

Irabazleak kartela erabiltzeko eskubideak lagako dizkio Arabako Foru Aldundiari, bai eta kartelaren zati edo motiboak erabiltzekoak ere. Arabako Foru Aldundiak saritutako lana ustiatzeko edozein modu erabili ahal izango du, hala nola, kopiatzea, banatzea, zabaltzea edo aldatzea, bai eta sare digitalen bidez igortzea, transmititzea eta eskura jartzea ere, Jabetza Intelektualari buruzko Legearen Testu Bateginaren 26. artikuluan adierazitako epean. Era berean, Arabako Foru Aldundiak kopiatutako kartela edozein euskarritan ustiatu ahal izango du merkaturatzeko, zuzenean edo hirugarren bati ustiatzeko baimena emanez.

**14. artikulua. Publizitatea.**

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da. Horrez gain, Arabako Foru Aldundiaren web orrian (www.araba.eus) jarriko da ikusgai, bai eta www.kulturaraba.eus webgunean ere.

Firmante: CN=ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARITZA - DIRECCION SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 211865
Fecha de firma: 2023.02.28 13:53:00 Z